



Ipuingintza

Ahokotasunaren eredu bat direlarik ere, ipuinak ahotik belarrira pasatzen dira zuzenean; ipuinak haurraren bizitzan betetzen duen funtzio nagusia bere sentimenduen garapenean laguntzea da. Kontalariak zuzenean transmititzen dizkio haurrari bere emozioak eta ipuinaren bidez kalitatezko emoziodun harreman bat sortzen da kontalariaren eta entzulearen artean. Ipuinei esker, askotan, haurraren sentimenduak eta gatazkak azalera ateratzen dira eta honek hitz-aspertuak sortzen ditu kontalariaren eta haurraren artean, honela, bien arteko intimitate emozional bat eraikitzen joaten da.

Haurrari ipuina kontatzen edota irakurtzen dion pertsonaren eta haurraren artean komunikazio lotura sakon bat sortzen da literatur egiturei esker; intimitate gune bat eraikitzen baita bien artean. Afektibitatezko gune horren baitan, egitura literarioaz disfrutatzen dute, zenbaitetan egitura dibertigarria delako edota, hainbatetan, kontakizunak azaltzen duen egoerak balio duelako haurraren antsiak eta kezak azaleratzeko.

Haurrak etapaz etapa bizi ditu irakurketak eskaintzen dizkion bideak mundua arakatu eta ezagutzeko; hasiera batean, bere inguruko helduen ahotsek eskainiko dizkiote bere historia txikia eraikitzen lagunduko dioten istorioak. Geroago, irakurketaren autonomia garatzen duen neurrian, berak bilatuko ditu bere heroi pertsonalak eta gustuko abenturetan murgilduko da, bere gustuko nobelak edota bestelako testuak aukeratuz.

Baina irakurketa pertsonalaren bidea eraikitzeko bitartekaritza egokia behar da. Testu idatziak interpretatu eta haien ulermena eraikitzeko bidea luzea bezain zaila da: irakurtzeak suposatzen du geldia egotea, kontzentratzea, azaleko esanahia gaingitu eta esanahi anitza eraiki eta kontrastatzeko gai izatea, bai norberaren esperientziarekin, bai kanpoko esperientziekin ere. Beraz, irakurle batek hasieran beharko du bitartekaritza berezi bat testuaren esanahi nagusiak ulertzen lagunduko diona, irakurtzeko esperientzia handitu eta gai honetan autonomia bilakatzen den arte.

Zenbaitetan presa handia erakusten dugu helduok haurrak bakarrik irakurtzera bultzatuz, idatzizko kodean lehenengo pausoak ematen dituztenean. Horrelako gehienetan, haien motibazioa amildu egiten da, testuak ulertzeko egin behar duten esfortzuaren truk ez dutelako plazerrezko ordainik hartzen eta irakurtzea derrigorrez bete beharreko lan akademiko bat bilakatzen da, plazeraren bidea erabat baztertuta.

BULARRETIK MINTZORAK baliabide desberdinak eskaintzen ditu bitartekaritza hau bideratu ahal izateko: egitasmoarekin batera sortu diren liburu CD-ak eta gainera, *informazio buletinean* urtean seitan eskaintzen diren bibliografia komentatuak eta sortzen diren ipuinak.